

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Goicoechea kontseilariak International Diesel Service-ren (IDS) instalazio berriak inauguratu ditu Altsasun

*Gasolina-zerbitzugune berrian 2,5 milioi euro inbertitu dira eta aurrekoa ordeztu du, urtean 80 milioi litro erregai salduz*

Miércoles, 18 de abril de 2012

Landa Garpen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilari Lourdes Goicoecheak, [International Diesel Service-ren \(IDS\)](#) instalazio berriak inauguratu ditu gaur goizean, Altsasun. Ekitaldian izan dira ere, Espainian Kuwait-eko enbaxadorea den Adil Hamad Al Ayyar, IDSren zuzendari Stuart Madden eta Altsasuko alkate Garazi Urrestarazu.



Goicoechea kontseilaria, Urrestarazu alkatea eta Kuwait-eko enbaxadore Al Ayyar Altsasuko IDSren instalazioen inaugurazioko zinta mozten.

Instalazio berrien helburua zerbitzuaren eraginkortasuna handitzea da itxoiteko denborak murriztuz eta kalitatea hobetuz. Instalazio berria IDS enpresaren emari-bolumen handienekoa da, urtean 80 milioi litro salduz. Nafarroako biltegiatze-gaitasun handieneko gasolina-zerbitzugunea ere bada.

Landa Garpen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilariak gasolina-zerbitzugunearen jabe den [Kuwait Petroleum International-i](#) eskerrak eman dizkio Altsasu aukeratzeagatik azpiegitura hori jartzeko; izan ere, "garraio eta komunikazioen bideetan puntu estrategikoa da Espainiako beste puntu batzuekin baina, batez ere, Europarekin". Goicoechearen arabera, egoera hau baliatu behar da "ditugun indargunean optimizatzeko eta era horretan inbertsio ekonomikoa erakartzeko eta, horrekin, enplegua sortzeko".

Azkenik, industriako kontseilariak adierazi du Nafarroako Gobernuak "Nafarroan inbertitu nahi duten enpresei laguntza emango diela, eskaintzeko asko dugula uste baitut".

Altsasuko gasolina-zerbitzuguneak gasolina hartzeko 8 leku ditu AdBlue hornigailuekin eta kolore gorriko 2 diesel-hornigailu (diesel industrialak). Gainera, instalazioak bezeroei beste zerbitzu batzuk eskaintzen dizkie: jatetxea, denda, dutexak eta aparkalekuak. Birmoldatzeko lanak 2011n zehar egin ziren eta 2,5 milioi euro inbertitu da.

Internacional Diesel Service (IDS) Kuwait Petroleum International-en (Q8) enpresa bat da, errepidez distantzia luzeko enpresei erregaia hornitzeaz arduratzen dena. European IDSk 600 gasolina-zerbitzu-gunetik gora ditu diesel eta AdBlue hornigailuekin.



Altsasuko IDSren gasolina-zerbitzugunea.